



MANDARINAK



Inventarium

Kontzeptuak:

Gezurra / Fikzioa
Lapurketa / Jabetza
Banpirismoa
Sorkuntza / Begirada
Zirriborroa
Akatsa / Hankasartzea / Ezustekoa

Erreferentziak eta lan materialak:

L'usage de la photo. Annie Ernaux & Marc Marie
Louis le Prince
Lumiere anaiak
Razielen itzulera. K.A
Green Screen Gringo
Dracula. Bram Stoker
Florence Balcombe.
Sipo Phantasma. K.A.
Quebrantos. Maria Elorza eta K.A.
Cirurgia. Querido Antonio
No eres nada. Querido Antonio.
Agosto sin ti. Maria Elorza eta Maider Fernandez
Carta a un joven poeta. Rilke.
Ikea katalogoa
Way Jambu. Manu Uranga
Listas. Ignasi Aballi.
Faceless. Manu Luksch
Las Ruedas de la aves. Emily Dickinson
Failed it!. Erik Kessels
Se Villana. Maria Cañas
River Rites. Ben Rusell.
How to shave your legs. K.A
Zineborroak. K.A
2 fotogramas. Aitor Gametxo.
Goldberg variations. Glen Gould
Uzak. Nuri Bilge Ceylan
Exercices de style. Raymond Queneau
99 ways to tell a story. Matt Madden
Argazpigituluak. K.A
Igeri edo Itto. K.A.
Farmazia Beltza
Belleza infinita argitaletxea

MANDARINAK


Plaquettea:

Tamaina txiki eta xumeko argitalpena. XIX. mendean, frantziako poeta eta idazle berriek beren lanak argitaratzeko, plaquette "eskuhorri" formatua erabiltzen zuten eta hortik datorkio izena.



EGILEAK

Esti Curiel Prieto
Ainhoa Aldazabal Gallastegui
Arrate Arozena Mujika
Ixi Eratsun Urtelaieta
Iraitz Lizarraga Gomez
Ainara Azpiazu Aduriz
Uxue Arzelus Lasa





Atarikoa

Annie Ernaux eta Marc Marie idazleek, beren maitasun harremanaz oroitzen zutena kontatu zuten *L'usage de la Photo* liburuan. Memoria ariketa horren abiapuntua argazki batzuk izan ziren, Annie Ernauxek, sexu enkontru haietan lurtean barreiatuta geratzen ziren beren jantziei ateratzen zizkienak hain zuzen ere.

Gauza bera egin nahi izan dugu gure ikastaroarekin. 2021. urteko azaroan, Hitzaren Eskolako klaseetan egindakoa eta hautemandakoaren "argazkia" egin eta argitara ekarri. Izan zitekeen beste bat, beste asko, baina eskuarteaz duzun Mandarina plaquettea da saiakera horren emaitza.

Koldo Almandoz








Ilun egiten du kanpoan eta hotza ageri da lehiotik. Gu bero gara, manga motz eta kul(ero)tan gaude. Mahaiak banatzen digu gorputza eta gerritik gorakoa bakarririk ikusten da. Hala ere, mahai azpiko bizitza sentitzen dut nik oinetan.

Ainhoa Aldazabal Gallastegui





()

Gelara sartu orduko
biluzten hasi gara
soseguz, banaka
inperfekzioz beteta
urduri, zazpi lagun

Arrakasta
ala arrastaka

Pantaila handian
Apple
The Big Apple
emakumea
bere bakardadean
Eta hirukotea
eman, eh!man, eh!MAN

Fedea
Eta lan
Eta lan
Eta aritu
kalean
mendian
dutxan
jaso
droga pixkat?
eta probatu

Dena
eta ez dena
begiz bota
Brasil
gezurra
Gringo!
sinestarazi
Pantaila berdea jarri
gozatu
jolastu
salatu
eta errealitate bihurtu

Mandarina bat?

Arrate Arozena mujika

“AITORTZEN DUT” elkarlaguntza taldea

GURDIAREN METAFORA:

Bazen behin Errezilgo Arritxikigoikoa baserrian bizi zen Pello izeneko baserritar bat. Egun batean Pellori soroa zimaurrez ondu behar zuela bururatu zitzaion uzta hobe izateko. Gurdia ikuilura hurbildu eta arin asko palakadaka bete zuen zimaurrez; sekulako kaka-mendixka gurpilduna zirudien! Harro zegoen Pello bere lanaz - Erraz bete duk gurdia Pello, artista bat haiz!- esan zion bere buruari.- Orain gudia sorora eraman eta eguerdirako herriko ostatuan txikitoa hartzeko moduan izango nauk! - pentsatu zuen bere baitan.

Gurdia ardatzetik heldu eta tiraka hasi zenean... Haiek komeriak! Ez zen gai gurdia apur bat ere mugitzeko. Pello haserretu egin zen hasieran; haserre hura tristura bihurtu zitzaion ondoren eta negar batean hasi zen. Ondoko baserriko Martinak entzun zuen eta berehala hurbildu zen laguntzeko asmotan. Biek gurdi ardatzari indarrez tira egin zioten eta kaka-mendia zentimetro gutxi batzuk mugitzea lortu zuten. Martina bere seme-alabei deika hasi zen eta han agertu ziren lau morroska eta bi morrosko eta berehala jarri ziren gurdiari tiraka. Antton eta Luisa herrirako bidean Arritxikigoikoa ondorik pasatu ziren eta bi aldiz pentsatu gabe batu ziren taldeari. Periko, Mariana, Ildefonso, Miren, Josune, Euxebio eta Euxebi.... Talde polita elkartu ziren azkenean eta aise eraman zuten zimaurrez piloa sorora. Ondoren guztion artean sororan zabaldu eta euren lana ospatzera joan ziren poz-pozik herriko ostatura.

ONDORIOA: Pertsonak MIERDA handiak egiteko gaitasuna dugu baina errazago da hauek taldean eraman eta munduan zehar zabaltzea.

“AITORTZEN DUT” TERAPIA TALDEA

Guztiok egin ditugu hankasartzeak gure bizitzan, lan arloan, harrremanetan... Aitortu dezagun, guztiok egin ditugu MIERDAK. Kagada txikiek geure egunerokotasuna ziprztintzen dute, oharkabean pasatzen diren hankasartze hauek ordea, urteetan zehar geure inkontzientean pilatu eta blokeoak sortzen dituzte. Kaka txiki hauei gehitu behar dizkiegu hizki larriz idatziriko TXORONGOAK, artelan forman argitara ateratzeko ausardia izan ditugun PUTZAK: liburuak, antzerki obrak, pelikulak, poesiak... Lan eta esfortzu handiz landutako piezak, bere garaian harrotasunez defendatu genituen, baina perspektibaz begiratzen ditugunean lotsatu arazi egiten gaituzte.





Izan al duzu halako esperientziarik ? Zeuk ere MIERDAZ beteta daukazu motxila? Ba lasai! Geure metodoari esker pisu hori arintzea lortuko baituzu. Metodoa terapia taldean oinarritzen da: asteazkenero 18.00atik 20.00tara eta larunbatero 10:00atik 13:00tara hainbat sortzaile elkartuko gara geure kagaden esperientzia konpartitzeko. Zientifikoki konprobatuta dago pasarte traumatikoei hitzak jartzeak barrena lasaitzen duela eta gainera besteenak entzuteak geure frustrazioak erlatibizatzen laguntzen du, antsietate mailak jaitsiz.

IRAUPENA: Infinitua. Ez dugu inor engainatu nahi, ez dugu erabateko osatzea bermatzen oraindik ez baitugu halako kasurik katalogatuta. Geure pazienteei kagadak egiten jarraizten dute baina desberdintasun nabarmen batekin, terapia taldean komentatu ondoren, ez zaie inporta eta ez die inolako traumarik sorrarazten. Modu horretan bizimodu zorientsuago baterako aukerak biderkatzen direlarik. Tratamenduak konstantzia eskatzen du eta bizitza guztian mantendu behar da.

TOKIA: Azpeitiko Dinamoia espazioa. Espazio hau aukeratu dugu sormenerako gunea izanik, eraikin hau Kagada haundi askoren testigu izan delako.

TERAPIA TALDEAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK: Sortzaile izatea edo sortzaile izateko asmoa edukitzea.

PREZIOA: Doainik; Eusko Jaurlaritzak eta Azpeitiako udalak diruz lagundua.

OHARRA: MIERDA hitza gazteleraz erabiltzea ez da hautu politikoa eta linguistikoa, ezta politiko-linguistikoa ere. Irizpide fonetikoak soilik hartu ditugu kontuan.

Iraitz Lizarraga Gomez

D.K.-ren estrategia

“Pertsonok animaliek ez daukaten gaitasun bat daukagu, errealitateaz harago gezurra edo fikzioa sor dezakegu, jendea liluratu”. Eta helburua lortzen ez badugu? Inor txunditzen ez badugu, konplazentzirantz jo ala gure printzipioei eutsi?

- Euskal Herrian kultur sorkuntzan sekulako maila daukagu- esan du Estik gogotsu.
- Baina agintean daudenek ez daukate arrastorik ere eta dirua beraien laguntxoei ematen diete eta horrela ez dago ezer egiterik!- erantzun Koldok bekozko iluna jarrita.

- Hemen falta dena fundamentuzko kultur-kudeaketa bat da, ez egoteagatik horren gaineko ikasketarik ere ez daukagu eta!- Arratek haserre.

- Nik ere Bartzelonara joan behar izan nuen! Eta orain bidegurutzean nago, egonkortasuna edo sorkuntza? Nora joko dut?- Uxuek etsipenez.

- Sorkuntzatik bizi ahal izateko bai egin behar direla malabareak. Gure Zirkuan baino gehiago! Eta jakinaren gainean ari naiz hitz egiten- Iraitzek.

- Irakurle baino idazle gehiago dituen herri batetik zer espero duzue, bada? Laster liburutegiak konbentuak bezala bukatuko dute! Emakume helduak baino ez dira joaten eta! Ingelesak bagina, bostetako tea solik faltako litzaiguke “estampa” osatzeko- Ainhoak ironiaz.

- Baina hori guztia ez da okerre. Guk sekulako ideiak ditugu, baina jendearengana ez gara iristen. Ez gaituzte ulertzen! Jendea motza da!- berriz Estik.

- Horixe da aipatu nahi nizuena. Ni D. K. Elkarteko ordezkaria naiz Euskal Herrian. Cannesen ezagututako produktore baten bidez izan nuen bere berri. Entzun al duzue Darwinismo Kulturalaren teoria? Gizakiak eboluzionatu beharrean, inboluzio batean sartu da. Zerbait egin beharra dago. Aitonak baserrian jada balio ez zuten animaliekin egiten zuen bezala, aniztasun kontzeptuala dutenak “kendu” egin behar dira. Bestela, gureak egin du! - Koldok tonu misteriotuan.

Axota lurrera erori zait eta burua altxa dudanean, begiradak iltzatuta dauzkat.

Ixi Eratsun Urtzelaieta



AKATSA

Hitza

Hitza falta.

Hitza guztiak eta bat bera ere ez. Korapilatuta, askatzeko zain, nondik tira jakin gabe.

Batean pentsatzean bi, hiru, zortzi datozkit arrapaladan: bokalak zanpatuz, silabei eutsiz, izateko lekurik ez topatzearen beldurrez.

Begien atzean eratzen dira, bertan gordetako argazkien babesean, eta ezpainetarako bidaian adorea galtzen dute izenlagunek, ausardia aditzek.

Zenbait erdibidean geldituko dira, trabatuta, hortzek eraturako hesia ezin zeharkatu.

Gutxi batzuk hiztegiaren gotorleku den ezarririk irrist egin eta bularrera iritsiko dira, azken bultzada baten esperantzaz. Bertan puntuazio markak arnastuko dituzte birikek, eta galdera ikur eta etenpuntu amaigabeen artean koma bat gailenduko da: beharbada, agian, akaso dioen koma.

Lotsa eta izua ezagutzen ez dituen sabeleko zirrikitu batetik datorren indarrak ezker besotik eramango du zalantzaz beteriko taldea, arrastaka, behatzen goxotasunean gorde arte. Eta bidean galdu direnen hutsuneak beteaz, esaldiak josten hasiko da eskumuturra: ikaratutako izenlagun eta aditzek lekua egingo diete arrapaladan lotutako bokal eta silabei; eta koma, puntu eta harridura marka artean saretzen joango dira hitzak: begi atzean eraturako bi, hiru, zortzi izatetik ezpainek esan ezin dezaketan testu bilakatu arte.

Uxue Arzelus Lasa

Koldo
Bla bla bla bla bla bla
Besteak,
Bla bla bla bla
Ni,
(Ez jarri urduri, izan pertsona normala)
(Joder... Ixo)
(Porrota)
Koldo
Bla bla, bla bla,
Arrakasta eta zoriaren bla bla.
New Yorkeko porrota ala arrakastaren bla bla.
Zoria?
Mandarina bat,
bla bla bla
Pantaila,
bla bla,
Berdea
bla,
,
,
,
Whatsapp taldean konektatuta gaude.

Esti Curiel Prieto

... Mandarinak eta sagarrak lurtean botata, koloretako arkatzak sakabanatuta,
orriak hegan, koadernoak solte,
jendea inguruan,
jendea begira,
jendea telefonoak eskuan,
jendea argazkiak egiten (AKATSA),
jendea bideoak grabatzen,
jendea zineborroak egiteko aprobetxatzen,
jendea bata bestearen gainean oihuka eta zarataka.
1, 2, 3, 4, 5
Batzuk abesten eta pertsona bat pianoa jotzen. Eta pertsona txinatar bi dantzan,
bafle batetik ateratzen den musika jarraituz. Eta hiru pertsona besarkatuta eta lau
lauki bat egiten eta bost korroan.
Korroan korro toro.
Zezena laster iritsiko da Azpeitiko kaleetan barrena.
Soka muturra. Muturra. Mutua. Muuuuuu
Dinamora iritsi eta irakaslearen gorpua ikusi nuen. Barrez lehertzen ari zen.

Ainhoa Aldazabal Gallastegui

... Artista hauek nabarmentze arren jada ez dakite zer egin. Esperimentu horietako bat zela pentsatu nuen. Non zegoen kamara ezkutua? Originala izatea eta horrela jendea liluratu nahi izatea zilegi da, baina hura gehiegitxo iruditu zitzaidan.

Minutuak aurrera zihoazen eta ez zen mugitzen, zirkinik ere ez zuen egiten. Elkarri begiratu genion eta mahaian eseri ginen. Gure esperientziak partekatu genituen. Sekula baino gehiago hitz egin genuen. Gu protagonista. Andy Warholek zioen moduan, 15 minutuz besterik ez bada ere.


20:00etan bukatu genuenean, anbulantzia deitu genuen.

Ke no, Koldo, ke no.

Beste begirada batez begiratu genion. Berak irakatsi bezala. Begiradan dago gakoa querido Koldo.

P. D. Azti ibili!
Hilotzen buruak ebasten dituen jendea dabil, horien jeinutasunaren jabe egin nahian.

Ixi Eratsun Urtzelaieta



HITZAREN LIRA

Har dezagun klasea, (7a)
Inguru arriskutsua den hura, (11b)
Tira, jada etxea. (7a)
Ziber edo gertura, (7b)
Aske utzirik arkatzak, gustura. (11b)

Uxue Arzelus Lasa

... Odoleran. Bere ezker oineko behatz loditik odola borboraka ari zen, gorpuaren inguruan odol putzua sortuz.
Oraindik arnasa hartzen ote zuen jakin nahi nuen, horretarako hurbildu egin behar nuen baina odol guzti hori lurrean... erosi berri nituen zapatila zuriak zikinduko nituen eta odol markak ateratzea ez zen erraza izango.
Beraz hurbildu gabe dei egin nion: Koldo! Koldo!!!
Ez zen mugitzen, ez zuen erantzuten.
Albo batera begiratu eta bertan ikusi nituen beste ikasleak. Isilik. Harrituta.
Arratek eskutan txintxeta kaxa bat zuen.
Ixik kartel bat.
Ainhoa mandarina bat jaten ari zen.
Uxue lurrera begira zegoen, Koldoren behatz lodiaren alboan zegoen txintxeta bati so.
“Oinutsik ibiltzearen arriskuak” esan zuen Ainarak gelaren beste aldetik, eszena margotzen zuen bitartean.

Esti Curiel Prieto

...Hurbildu eta bera zela ziurtatu nuen. Mugikorra hartu eta whatsapp taldean sartu nintzen. Denak zeuden linean. Gorpua zeinek ezkutatu behar zuen galdetu nuen, ni iristerako desagertaraziko zutela hitzartu genuela. Inork ezer esaten ez zuela ikustean banan-bana begiratu nituen perfilak: “última conexión hace menos de un minuto”, “última conexión hace dos minutos”... Kontaktuetara jo eta Koldoren telefonoa bilatu nuen. Berak lagunduko gintuen, ziur negoen.

Uxue Arzelus Lasa

2-. (Ez) KLASEA

Ainhoa: Benga Ainhoa, jaiki ohetik. Etxekolanak dakaguz.

Nire burua (Hau da, Ainhoa): Bueno, bixar be egin ditzaket.

A: Bixar ez doguz egingo, gaur bazkarixa dakazu eta afaldu denbora galdu egingo dogu.

NB: Bueno, baina ez gara asko luzatuko, ez?

A: eeeeeeeeeeeez, kebaaaaaaaaa! Ez dakazunez parrandarako gogorik...

NB: hori egixa da... Baina lo pixkat gehixau egingo dogu. 11.ootan ipinikou alarma. Eta ordu horretan jaikitta etxekolanak eitteko denbora dakagu.

A: Ados, 11.ootan ipini dot alarma.

Pipipipiiiiiiii pipipipiiiiiiii pipipipiiiiiiiiiiii

NB: Jo, amets interesgarri baten erdixan esnatu nau alarmiak. Ia begixak itxi eta amesten jarraitu ahal doten

A: AAAAAAAAAAy ze astuna zaran, azkenian ez dogu ezebez aurreratuko.

NB: 13.ootan geratu gara lagunekin, egixa esaten badetzut ni marianituan pentsatzen nabil.

A: Egixa esan irakaslia ez da etorri... Madriler a jua da, gu baino inportantiauak diran gauzak eittera. Zer? Ba ni marianito batzuk hartzera juango naiz. Total.... Bestiek be ez dabe etxekolanik egingo, seguro.

NB: Jolin, tia! Horretarako goiaz ordu eta erdi negoziatzen? Azkenian arrazoia neri emoteko?

Tiiing! (Whatsappeko mezua)
Hitzaren Eskola: Arrate
Kafe beroa eskuan pelikula ikustera noa, pasahitza pasako?
Hitzaren Eskola: Ixi
Nik ikusi det ya, pasahitza bertan dago, Arrate

A: Jodeeeeeer!

NB: Ala, nena, dutxara! Ez emon bueltarik. Jantzi, margotu ezpainak eta segi kalera. Ez gara gaur enterau prokrastinatzaileak garala. Gainera, Madriletik Koldo ez da enteratuko bidixua ikusi dogun edo ez. Dont guorri

A: Baina ez saiatu errua besteei botatzen.

Tiiiiiiing (Whatsappa)

NB: Ainho, hauek baldin badira ez irakurri mezua. Pentsatuko dogu bixar noiz atera lanak eitteko tarte bat. Baina gaur ez egin kasorik.

A: Ba ez, lagunak dira.

(Oihane: Ainho, ni prest nago, tinbria jokotzut eta goiaz elkarrekin?

Ainho: Zoragarri maittia, ni ixa prest, ontxe arte!!)

Ainhoa Aldazabal Gallastegui

..Ez nintzen ausartu hurbilzera ere, non zeuden beste ikasle guztiak? “Beraiek alde egin badute, niri ez zait komeni hemen geratzea” Disimuloz eraikinetik atera eta parkineko atea zeharkatzera nindoala, Ixiar topatu nuen, klasera bidean zihoala.

-Norabidez nahastuta edo?

-Ez, bidean nindoala koadernoak kotxean ahaztu dudala gogoratu dut. –esan nion lasaitasun plantak eginez. – Berehala noa gelara. – eta parkineko eskilarak jeisten hasi naiz, denbora irabazi asmoz.

“Aurki dezala berak” pentsatu dut nire artean.

Gelara bueltan sartzekoan, Ixiarrek Koldo topatu izanaren itzaropenez, han topatu ditut gelakide guztiak, Koldoren inguruan jarrita. Ixiarrek burua eusten zion eskuekin, horrela topatu dutela, lurrean... “konortea galdu duela Ixiar iritsi eta gutxira. Konorterik gabe geratu aurretik zure izena aipatu digu”.

Ainara Azpiazu Aduriz

... Eta bitan pentsatu gabe alboan etzan nintzen.
-Zer, gaur ere begirada berriak landuko ditugu, ezta?
Konturatzeko zazpiak bata bestearen ondoan jarri eta lerroa osatu genuen.
Hankak zabal, luze, besoak luzeago, behatz puntekin ia ia elkar ukitu arte.
Sabaira begira geundela piano baten nota solteak entzuten hasi ziren. Arnasa
pausatzen hasi zitzaigun, astiro, sakon...
Xabi Gantzarain sartu zen arte.
-Zer, gaur ere ridikulua egiten?

Arrate Arozena mujika

() ()

Kuleroak ez ahaztu
Peio, berriro kakazten?
Bai, andereñoak bilduko ditu denak gero
Konposta, saski koloretsuan
Eta punto. Eta koma.
Eta punto eta koma.

Eta zu?
Madrilen?
Nolatan ba? Fantasma!
Irudiak irudimen
Bla, bla, bla
diskurtsoak elikatzen
Gu hemen, inguru arriskutsuan
Demagun, zutaz ikasten

... tela!

Presentzia?
Ez, haria nahikoa omen
Bram, Florence, Wilde
han, zuri beltz itsasoan
eta zuek Villabonan, Beasainen, Eibarren
eskuz hitzak urdintzen
Ni hemen, kafe huts tabernan
pantaila begiz jotzen

Onirikoa?
Florence bere bakardadean
Pilotua sokaz lotuta
eh!MAN, eh!man, leman
Eta hi? Zutitu hadi behingoz, txo!
Aurpegia zurbiltzen duk, ala?
Drakula, hemen
itzalak hezur mamitzean

Mamua?
hilobia isiltasunean
Gutunak, itsasoa, maitaleak
azalak hurbilduz ezerezean
hori, urdin, arrosak kendu
Nor da nor? Zer nork biluztean
Fantasmak, hemen
Buruak galduz bestaldean

Arrate Arozena mujika

1.-Izpiritu naturala: mimetizatu

Corrugados: lantegi fantasma.

Lana da gizona gizon egiten duena. Produzitu.

Corrugadosen 40 urte. Zein da zure prana? Zerk ematen dizu bizi-poza?

Denborarekin Langilea fabrikaren organo bilakatzen al da?

NO ERES NADIE.

Biziraupenaren artea.

2.- Izpiritu bitala: bizitza

Bizitza SORTU. SORGIN

Amatasuna. Pertsonak Produzitu.

Malko gorriak kulerotan. Bizitzarik ez. Sabel antzua. Umetoki, umekiro. Kitto!

NO ERES NADIE

Inori bizitzarik ematen ez badiozu, zuretzako gehiago geratzen al da?

Zilbor-heste fantasmak ito al zaitzake?

Bizitzaren artea

3.-Animalia izpiritua. Piztu da piztia

Guerrilla girls. Metropolitan museoa. New York: erakusgai dauden emakumezkoen obrak % 5

Emakumezko jeinurik ez, jeinu arrazializaturik ez.

Genealogia fantasma.

NO ERES NADIE

Odola. Bizitzaren likidoa

Odola zikina da. Lotsa. Gorde. Tabu.

Bizipen fantasma.

Odola askatu. Hilabetero erraietako odol gorria mihise zurian. Materia organikoa.

Zero zabor. Arte ziklikoa.

NO ERES NADIE

Nor zara? Zein da zure etiketa?

Bizitzarekin artea.
Arte bizia.
Bizi artea.
Bizi arte, BIZI.

Ixi Eratsun Urtzelaieta

Gau batean, argi distiratsu bat agertu zen zeru ilunean. Itsas ertzeko herri bateko biztanleek, unibertsoetik zetorren beste izaki batzuen laguntza deia zela usten zuten. Beraien mugikorrak atera eta argi izpiak eginaz mezu honekin erantzun zuten:

“Guk ere laguntza behar dugu”.

Esti Curiel Prieto

Gizon gazteak euren mugikorrek in ilargi izpiak harrapatu nahian: argi harrapaketan, egiteke daukaten bidea, bidaia argitu ahal izateko.

Halako batean, gazte batek itsasoan ilargi izpiak islatzen direla ikusi du. Eskuekin harrapatu nahi izan du, ustez materia egin den argia. Gorputzarekin sentitu nahi izan du, argi olatuekin jolastu... eta jolasean-jolasean argiak ito eta itsasoaren hondo iluna jo du.

Gazteek ez dakite ilargia hilen argia dela eta haren distirak itsutu ditu.

Iraitz Lizarraga Gomez

2021/11/6, 10:00 p.m, Madrid: Koldo Doña Manolitan ilara egiten ari da Gabonetako loteria erosteko. Hamaika dezimo erosi nahi ditu, zenbaki zehatzak, azterketa estatistiko asko egin ostean aukeraturikoak. Esperimentu bat egin nahi du: lanaren defendatzaile sutsua izanik, aberastuz gero lanean jarraituko ote lukeen konprobatu nahi du.

2021/11/6, 10:00 p.m, Donostiako Boulevarda : Arrate surf egin nahian dabil Boulevardeko kioskoaren ondoko lorategian baina pantaila berdea eutsiko dion inor ez du topatzen. Zorionez Uxue agertu da eta gogoz eutsio dio pantailari... olatu izugarriak daude.

2021/11/6, 10:00 p.m, Tolosako azoka: Ixi erosketak egiten ari da Ainhoa gonbidatu baitu bazkaltzera. Ainhoak postrea eramango du; mandarinak. Ixik baratzuri zopa egitea pentsatu du, egun hotzetan ederki sartzen da. Bide batez, soberan dituen baratzuriak banpiroak uxatzeko erabiliko ditu. Pentsatzen jarrita, mandarina aleak eta baratzuri aleak oso antzekoak dira.

2021/11/6, 10:00 p.m, Pagoeta (Aia): Esti orduak ehizatzerara atera da, asteari orduak falta zaizkionaren aitzakian. Pin, pan, pun dabil goizeko ordu txikietatik baina ez du ordu bat bera ere bota... hiru segundu mixerable, besterik ez.

2021/11/6, 10:00 p.m, Orio: Iraitz arrantzan dabil, ideia onen bat harrapau nahian. Oraingoz korrokoi pare bat besterik ez ditu saskiratu. Beno, Frantzian jan egiten omen dituzte...

2021/11/6, 10:00 p.m Dinamo (Azpeitia): Koldo, Arrate, Uxue, Ainhoa, Ixi eta Iraitz elkartu dira klase bat jasotzeko. Egon gabe egingo dute klasea eta bitartean egin gabe ezin egon eta batzuk Donostian, besteak Madrilen, Aian, Orion, Tolosan... Fikzioak hori baitu ona, bi lekutan batera egoteko aukera ematen digula.

Iraitz Lizarraga Gomez

IPURTARGIAK

((Hil)argiari argia eskatzen
Ipurtargiak
Ipurdia galtzen
Galdutakoa bilatzen
Biz(hitza) bilatzen
Biz(h)itza biltzen
Biz(h)iltzen
Bizirik hiltzen
Hil ez direla esateko
Bizirik daudela baieztatzeko
Kobertura bilatzen

Ainhoa Aldazabal Gallastegui

GAUR.

ILUNTASUNA.

SAREAK EZ GAITU HARRAPATU.
OFF

SAREA HARRAPATU DUGU.
ON

ARGIA.

BIHAR?

Ixi Eratsun Urtzelaieta



ILUN

HAN...DI...K

ITZARGIA ARGIA

ITSASOA

ALI
MOHA

hONa kaixo???

bada inor? kaixo???

hil
kaixOO???

bizi

bizi

nON zauDetE?

arrastoak

pilatutakoak

zapatak

zakarrak

txalekoak

Mugikorrak atera ditugu. 307-ak linternak piztea iradoki du eta hala egin dugu. Sabaitik zintzilik dagoen argi berezi horrekin lehiatu nahiko bagenu bezala. Inoiz ikusi dugun sabairik zabalena da, eta linterna borobil handi horretaz gain, diz-diz egiten duten bonbillatxoak ikus ditzakegu han-hemenka.

Lurra ere arrotz egin zaigu oin azpian. Gogortasuna galdu duen zorua da, eta hondorazten gaituen berotasun bat sentitzen dugu hanketan. 54-ak aurrera egin du, eta galtzak busti dizkion ur putzu izugarriarekin egin du topo. Izututa korrika hasi da, baina zorua itsatsi zaio galtza hezeetan, eta pisuaren eraginez lasterketa moteldu behar izan du.

Mugikorra poltsikoan sartu eta ingurura begiratu dut. Nire harridura kideen aurpegietan aurkitu dut, baita beldurra ere. Batzuk alde batera eta bestera begiraten dute, eskua ematen diote elkarri zenbaitek, eta ulergaitza zaigun egoera honi buruzko informazioa bilatzen dute gutxi batzuek. Zalantzaz beteriko begiradak nagusitzen dira.

Besteetan ikusi ez dudana, ordea, barnean dudana esperantza da. Inoiz sentitu ez dudana haize honek aurrera egiteko indarra eman dit, eta ur putzu ertzera hurbildu naiz. Beharbada beste aldean badago zerbait. Orain arte bizitakoa baino zerbait gehiago. Eta nik ikusi egin nahi dut. Sabaiko linterna itzaltzean abiatuko naiz.

Uxue Arzelus Lasa